



MUSIKA

Gatz bako jendea? Ez!

ZERTAN SINETSI

GATZ

AUTOEKOIZPENA, 2019



IKER BARANDIARAN

Ondarroarrek gatzia sobera daukate, ez dira inoiz geldi egotekoak, musikazaleak ere badira eta ekimen-tsuak, baina esango nuke aspaldian ez dela hango musika talde berririk nabarmendu, ez behintzat kaleko soinu gogorretan nahiz eta jakin hori lortzea “gaitza” dela.

Horregatik poztu naiz Gatz taldearen berri izan eta entzun dudanean: jarre-ragatik, eskaintzagatik eta ezer asmatu gabe egiten dutena eta transmititzen dutena ona delako. Gerora jakin dut gatzdun herriak izan dituen hainbat musika talde gerlarietako kideak batzen dituela talde honek: Eskandalu Publiku, Gominols, Ukabil, Pater Noster, Sikofoni, Drogeners eta Jonny Gerriwelt, besteak beste. Eta, hain zuzen ere, azken

talde horietako kideak dira gaur egun Gatz laukotea osatzen dutenak.

Jonny Gerriwelt albo batera utzi eta denbora ez luzera poliki-poliki batzen joan ziren berriro kanta berriak –punk-rockeroak eta aldi berean melodikoak– idatzi eta plazaratzeko asmotan. Hala, 2014an lau kantako demo bat argitaratu zuten; 2018an, berriz, *Ez dut nahi* izeneko lan luzea; eta orain *Zertan sinetsi* ateo eta erabat gertuko disko luzea, Mikel Kazalisekin Fidelenea estudioan grabatutakoa.

Antzematen da street-punka oso presente izan dutela, batez ere zenbait koro eta melodiatan, baina hemen batutako bederatzi kantatan bestelako sonoritatea bilatu dute: *Noraezean*-ek badu



Ondarroako Gatz taldeko kideak.

Turbonegrotik adibidez gitarretan eta irmotasunean, hit!etako bat da. *Galtzai-leen mendekua* punk-rock azkarra da, 80ko hamarkadan hankak dituen. *Pu-treei so* ere azkarra da, baina 77tik eta Alemaniako punketik hurbilago dago. *Prostitución* da 77koa eta rock-and-rolleroa NCC eta Eskandinabiarrek gogora ekarri. *Zainetan* jai-girokoagoa da, punk-rock-and-rolleroa. *Zertan sinetsi*, beste hit!a, punk-rock indartsua da 80ko doinu eta tempo erdiekin aberas-tua. *Queen of the living dead* gitarra riff martizianoa duen punk-rock zapalgai-lua. *Adikzio* Daily Terror gogora ekarri didan punk-rock itsaskorragoa. Eta, azkenik, *Lagun*, Social Distortionen ma-lenkonía eta melodia tamaina duena. ●

MATRIKULATU

EUSKAL ESKOLA

PUBLIKOAN

DENONA eta DENONTZAT

